

JESUS JAYO BARRIARI.

AMALAUDUNA.

Palmá leortúen kerizpe sikúan
 Errómesa¹ zélan dan atsedetén
 Itúrri leyárki bizi ta ozchúan
 Basáuntza sarri da urez asetzen.
 Goiséan gois dábez uda agortsúan
 Lorachuak inótz² tantak edatén
 Bide galdudúnak gau illun itsúan
 Egunari deika dira egotén.
 Illúnpe onétan Jesúscho ederra
 Izángo zachátaz gaur Eguzkia
 Izán zakidáz, bai, ene gidaria
 Izán ez nakízun lengoa bera;
 Izán egidazu, Jauna, errukia
 Izángo nachátzu leyál aurrerá.

FELIPE ARRESE ETA BEITIA.

¡ONENZARO!

Zutan pensatzen jarri ezkerro
 Euskaldunak eztu penik,
 Azken arnasa botakoluke
 ¡Jesus! berotzeagatik.

ANTONIO ARZÁC.

1883-an.

(1) Peregrino.—(2) *Inotz-a*, rocío. Sin.^s— *Intza*, garua.